



HAL
open science

Joañes Castet-en-kantu-kahierra (Oztibarre, 1936)

Charles Xarles, C., X. Videgain

► **To cite this version:**

Charles Xarles, C., X. Videgain. Joañes Castet-en-kantu-kahierra (Oztibarre, 1936). Lapurdum, 1997, II, pp.129-159. artxibo-00000048

HAL Id: artxibo-00000048

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000048v1>

Submitted on 13 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Xarles VIDEGAIN

**JOANES CASTET-EN-KANTU-KAHIERRA
(OZTffIARRE, 1936)**

Résumé. Nous présentons ici un cahier de chansons basques propriété de notre oncle Joaños Castet (1915-1981), originaire de Larceveau en pays d'Ostabarret. Basse-Navarre, copié alors qu'il était sous les drapeaux en 1936 à Bordeaux. Ce cahier comporte 23 chansons en basque qui représentent une partie du répertoire d'un jeune Basque durant l'avant-guerre. Presque toutes tirées du répertoire amoureux, si la plupart sont bien connues, certaines sont inédites : c'est le cas en particulier d'une chanson qui stigmatise un infanticide. Ce type de chansons est rarement répertorié à notre connaissance mais nous en avons trouvé une variante à Ordiarp, en Soule limitrophe, dont nous donnons aussi le texte.

Gure eskuetarajin kantu-kahier bat aurkezten dugu ondoko omaldeetan. Oztibartar batek atxiki zuen kahier hori lekuko gisa argitaratzen dugu : kantu frango ongi ezagutuak izanik ere. beste battu badira ahatik, ez bagaude oker, nehungo kantutegietan agertzen ez direnak.

J. Castet nor zen aipatu eta. kahierreko kantuen hitzak emanen ditugu. Ohar zonbait eginik grafiaz eta testuetaz, ez ezaguntzatjotzen dugun kantu baten aldakia aipatuko dugu, Ziberoko Urdiñarbe herrian bildu baitugu.

Kahierraren jabea gure osaba Joaños Castet (J915-1981) zen. Larzabalen sonu zen aitarnak hem an etxetiar zituela. Oztibarreko lurretan egon zen farnilia, Larzabaleko Phagolateian eta Jaureian, Jutsiko Amestioian, edo Arhansusiko Zolakian. Joaños Castet 1936ean soldado egon zen Bordelen hemengo kahierra izan zuelarik ; gerla-denboran Alemanek preso altxatu zuten beste hanitz bezala. Gerlatik landa guziz ezaguna egin zen garrai on eta otobusgoan lanean hasi baitzen, lehenik Ondarts etxean Donaphaulen eta laster beregain, merkazaleak Donibane-Garazira, Maulera, Baionara eta Donaphaulerat aste oroz garraiatuz, bera beti xofurgoan. Berantago eta merkatuen mugimendua ttipituz zoala, eskolierren biltzea eta SNCFko ibilbideak hartu zituen, *Hiruak bat* deitu batasuna Donaphaulen sonuz Oraarreko Detchart eta Landibarreko Haramberry lagunekin. Bere egoitza Donaixtiko Ithurraldean kokatua zuen. 1981ean hil zen.

Eskerrak emaiten dizkiogu hemendik Joañesen alarguntsa Marie-Thérèse Ayçaguer Uhartiarrari kahier hori gure eskutan utzirik.

Nolakoa ote da kahier xume hori ? Eskolako kahierra da, 17x22 zentimetroko formatoa erakusten duena ; pixka bat higaturik, kanpoko azala galdu du eta 94 omalde baditu : lehenbiziko 48 omaldeetan 23 euskal kantuak emaiten ditu, lehen orrialdean liburuaren jabea aipatzen duelarik. Hogoi ta hiru euskal kantuen ondotik orrialdeak xuriak egon dira salbu ahatik azken bi orrialdeetan frantsesezko La valse des artilleurs kantua hor azenzen baita. Ez ahantz 196e R.A.L.T. artillerako armadako errejimentua Bordeleko Nansouty kasernan zegoela.

Denboraren poderioz paperaren kolorea histu da bainan aski ongi irakurtzen da testu gehiena. Luma bat bera izan da kantu guzien idazten erauntsi dena testu batean ez ezik : Letxeroen kantua bestek idatzi du. Lau tinta agertzen dira; briulet eta urdina haboroenik, gorria eta beltza ez hainbeste. Zuhaldegaray deitu lagun bat izan diteke kahierra idatzi duena.

Izkirioa aski garbi eta itxura oneko de]a diogu : Casteten izkirioa ez da. Ahozko kultura aberatsa zuen Joafiesek ; aldiz izkirioz nekez baizik ez zen an. Luma atxiki duena Casteten eskua ez dela izan segurtzat daukagu. Aldiz ez dugu zuzen jakin ahal izan kantuak lagun batek kahierrean nolaz edo zergatik idazten zizkion. Ez dakigu ere bestalde bori usaia zabaldua zenetz soldadoen artean, edo oro bar aise idazten ez zutenen artean. Uste izaiteko da Jaguntza mota hori ez zela arraroa. Bestalde, segur aski, norbaitek kantatu arau idazten zuen idazkariak, ondoko kantuak ez baitira kopiatuak izan beste testu idatzi batetarik, itxura guzien arabera. Gerta zitekeen beraz Castetek edo beste lagun batek kantua abesteak, ongi idazten zuen batek paperean emaiten zuelarik kantua entzun arau.

Horra kahierrean agertzen diren kantuak. Grafia ez dugu aldatu. Ekartzen duen titulua parentesien artean ernaiten dugu :

1. *Milla zortzi éhuneta Jwmuzlau garrena* [galerianoarena]
2. *Hemen* [Ainhizarra]
3. *Bi bertzu nahi nuzke nik égun moldatu --.*
4. *Sor lekhua dut Frantziac duen eskual* [herri] *ederrean*
5. *Mila zortzi éhun eta gehiago duena* [Bankako nexkatxa]
6. *Primaderan dira gora arbolak oro lilitzen*
7. *Ourcho churi polli bat baigorrin sorthua* (Baigoriara)
8. *Atharase jauregian bi sitroin doratu*
9. *Argisari ederra argi egidasu* (La lune)
10. *Anderia ikus nesasu kampuan gaiski naisela*
11. *Izena dut Pierres deisten eliseri* (Saint-Just-Ibarre)
12. *San bartolomé arratsian millafrancatik jitian*
13. *Arrosak eder jloria ederago coloria*
14. *Lili polit bat badut nik*
15. *Cantore berri cJwrmant batsuen hastera noa kantatzera* (Luzaidiarra)
16. *Ibarlan baditugu kantore berriak* (Ibarlarra)
17. *Sortu.\" geros gusiek sor dugun hiltzia*
18. *Charmegarria nik zure berririk ezdut*
19. *Hogoi garen urtherat ari naiz hurbiltzen* [gastea hiltzeat doana]
20. *Zazpi zortzi bertsu berri nahi ditut ezari* (Bi gazten kitarz.ea ?)
21. *Suyet eder bat deklararzen dut gastek exemplu Jwrtzeko*
22. *Amerika hortako esne salzaleak* (Ameriketako letxeruaren kantuak)
23. *Kantuz emanizan tut zenbaiten berriak*
24. *La valse des artilleurs*

Ondoko orrialdeetan kahierraren testua emaiten dugu.

VIVE LA QUILLE (30 au jus)
Cahier de chansons Basques
appartenant à
Monsieur l'Ordonnance
du Commandant Médecin Fouchet
dénommé
M. 3Larceveau
et faisant actuellement son service
au 196° RALT à Bordeaux.
Caserne Nansouty
Cahier destiné à Melle [& ..]
Boniche à Bordeaux
à Bordeaux le 18/5/36. Certifié exact
[signé illisible]

[1]

1. Milla zortzi éhuneta hamalau garrena
 Ni hatzparnen prejo hartu nindutena
 Poma gaineko prima orok dakitena
 Galeretan higatu berko naitzena
2. Kantazera banoa alegera gabe
 Probetchurik ez baitut trichtaturik ere
 Nihun deujik ebatji gitzonik hilgabe
 Sekulakotz galerak ene tako dire
3. Huna sorigaitzezko primu itzaitia
 Harek ekari baitaut bethiko galtia
 Aitari galdeginik etheko partia
 Galeretan emanau hau da ene dotia
4. Aita dut aitzineko arreba ondoko
 Otsaba puyes hori diru fornitzeko
 Ez ordia enetako bi sei liberako
 Galeretan bederen leher egiteko
5. Ene lehen kutjia Kayet borda churi
 Fagoreat banuke egiteko zuri
 Ontgi adressa zaiten enen arrebari
 Ene galtzeko zombat eman dautzun jarri
6. Gure aitada gitzon kontjideratua
 Semia galeretan du segurtatua
 Nunahi othoitzian belhaunikatua
 Iduri Jeindu duzu madarikatua
7. Elitzara doatzi debotzionerekin
 Iduri doatziela jeindu gutziekin
 Bere libru eta arrojoriekin
 Deruak bejta hunik égitendu horiekin
8. Sortzi garen bertjua anaya hiretako

Konjellu bat banikek hiri emaitako
 Goberna hadi untja ezauk dolutuko
 Nibaita etjemplua erech duk hartuko

9 Kantu hauk eman ditut Paueko hirian
 Burdinaz kargaturik oi prejondegian
 Bai da kotpiatu dembora berian
 Gaztek kanta detzaten ahastparne herian

10. Hamar garen bertjua orok kantatzeko
 Ene gaste lagunek etjenplu hartzeko
 Eta partikulazki aita zuretako
 Kantu hauk aditzian semiaz orroitzeko

Fini

[2] Airea : [orri puxka bat falta da, doinuaren izena eta lehen lerroa ez direlarik iraz
 kurtzen]

1. Hemen

Casernan sarthu nintzan Bordeleko hirian
 Astearta zen eta Urriko hoita bian

2. Herritar bat ere badut enekin betan jina
 Etcherry Martty du harek bere izena
 Lagun hoberik izaitea da ezin daitekena

3. Sortzi garren egunean ez untsa gerthaturik
 Infirmerian eman naute bronchita baten gatik
 Oraino hemen nago ongi eneatu rik

4. Ganbara handi bat dut eta lau ohe laguntzat
 Kadrerik batto ez dut murru garnigailutzat
 Trichtezia handi bat da segur hoi enetzat

5. Omniasaindu eguna kantuz hasi nintzena
 Herriaz orhoit eta oi bihotzean pena
 Ganbaran egon behar duk hauche duk ba lastima

6. Seinhuak entzuten ditut dorretik errepika

Ikusten ere ditut hantchet ene herri & & [bazterra falta]
 ederrentan

7. Iau... .. pentsaketan emanik
 Begiak busti ditut orotaz orhoiturik
 Othoitz bat ere segur bihotzain erditik

8. Kurutze arin hori nik gogotik hartzen dut
 Urrikiz betherik nago hutsak egin baititut
 Jauna zarela laudatu eskerrak derauzkitzut

9. Ainhizan sorthua naiz haunditua ere ba
 Carricart deitzen eta Mañech izen ttipia
 Eskualdun seme eta girichtino nahia

fini..

Souvenir de Jean Recart

[3] Airea : Lili bat ikhusi dut baratze batean

1. Bi bertzu nahi nuzke nik égun moldatu
Bainan ez nuke nahi nehore kolpatu
Ez baitut entzun nahi naitzenian zahartu
Gazte denboran naizela bertzetaz trufatu
2. Nahi nuke hemen ongi esplikatu
Zer bizi dutan nik gaztean phazatu
Izar bat ezagutu bai eta maithatu
Bai eta oraialdiz elgar haztiatu
3. Bi lerro sauzkidan harek ichkiatu
Ez duela munduan bertzerik maithatu
Bai eta orai aldiz hark nau akuzatu
Haren konfidentzia dudala trompaturik
4. Urthe bat badu laster zintudala maithatu
Bainan gerostik dira egunak phasatu
Zure letra politek naute ni dudatu
Bai eta askeniane arrunt khambiatu
5. Amodioak baitu ainhitz kalitate
Fidela ez denian zanyatzen da fithe
Guk ere gindion élgar gindiela maité
Gauza bera guretzat erran bailitaké
6. Maitia hemen nago bizitza trichterik
Faltzuagorik ez dela orai suk erranik
Nola atheraturen naiz atheka huntarik
Laguntzen ez banau yainkoak beguirik
7. Bada bai munduan arima noblerik
Anhitzez gehiago kontzintzia gaberik
Zure arabera bainaiz ni horietaririk
Enetzat ez da izanen oi salbamendurik
8. Erran baiterautazu nautzula maithatu
Berze guzien artetik ere ba hautatu
Zertako nuzu beraz zuk hola chekatu
Hortan zira gaichua ederki trompatu
9. Baitzindion etzela munduan zortherik
Bakhotchak berak nahi duenaz bertzerik
Zuk ere hori zinnuen bai dejiraturik
Quontent zarenaz geroz urrunduz nitarik
10. Ez dautzut egin nahi hemen mehachurik
Nik bertzen yujatzeko ez dut kurayerik
Bada lurrean oraino bai nitaz bertzerik
Maithatuko duzuna oi ni ahantzirik
11. Khantu hok eman ditut Bordelé hirian
Aizina nuen batez errechimendian.....
Zorionik othé den nago ni mundian.....
Nola bizitzia oi libertatian.....
(Souvenir d un copain. Fini)

[4]

3 11
 11/11/11
 11/11/11
 11/11/11

1. Sor lekhua dut Frantziac duen eskual ederrean (sic)
Neure ait-améc altchatu naute girichtiki haurean
Hastapeneko urthe gochoac hemanic heien aldean
Orai hemen naiz Californian desertu baten erdian
Gau egun oroz arthalde baten alhatzen mendi gainean
2. Aurthen bi urthé hala beharra herrirat nintzan agertu
Izar bat charmagarria laster nuen ezagutu
Ni hartaz eta hura nitaz ongi ginen agradatu
Beldurez bertzek hauta zezaten ezkontzaz nuen galdatu
Bizi guzikotz enia zela eman zautan arapostu
3. Egin gintuen biek botuak esposlagun izaiteko
Bai eta ere tinkatu eskuak bethi fidel egoiteko
Erran zerautan sinhetz nezazu nik etzaitut ahantziko
Lehenago dut zure gatik odola guzia ichuriko
Ene bihotzian emana zaitut eternitate guziko
4. Zorigaitza ezin egona nik maitiaren aldian
Hura behartzen bizi hirian eta ni mendigainean
Ikusterat ene juaiten nintzan bethi ahal nuenian
Eraztuño bat erosi nion eta ezari erhian
Hari behatuz kontsola zadin ni falta ninduenian
5. Bizi guzian orhoituren naiz juanden erramu bezpera
Orduan ere juana nintzen maitiaren ikustera
Gauazko zortzi orenetan heltzian haren etcherat
Athé chilotik behatu nion sartu gabe sukaldera
Jaun gazte baten ondoan zagola gochoki maite fidela
6. Ichil ichila nintzan sarthu ni maitiaren gana
Elgar ginuen besarkatu eta eman musu bana
Ordu berian ohartu nintzan nik erosi erhaztuna
Jaun gazte harek zabilala beré eskian emana
Lantza ukaldi bat bezala zautan sartu bihotzian barna
7. Aratzartzeko aphaireua biharamun egurditan
Izar hura zen nahi lurian jaun gaztiaren aldian
Ez nuen jaten ez edaten han nindagon errabian
Eta ni gaicho trichtia arrotz guzien erdian
Bihotzak zautan zampaka jotzen eta nigarra begian
8. Aphaireua akabatu eta etzen ez nitaz orhoitzen
Jauntoarekin alegeraki egon zen....
Aski dembora elgarrekin egon eta jaun hura atheratzen
Ordu berian maitiaren gana ni ere agertu nintzen
Eta erran nion zendako zuen bertce hua preferatzen
9. Intzun orduko zen hegaldatu ene besoen artera
Ez etzuela ni bezen maiterik sinhesten ahal nuela
Solas guziez hatz perahen zeinetan zuen ikara
Bere gaizki lotsagarria ez baitzezaken deklarara
Azkenian bortchatu nuen egiaren erraitera

10. Berriz ere erraiten zautan ez dut zu bezen maiterik
 Bainan ere ezin bertzian behar naiz urrundu zure ganik
 Zorigaitzian eroria zuri fidel ez egonik
 Fruitu baten esperantchetan gerthatzen naiz bertzen ganik
 Sabela barnian hezur biziak seinditzen ditut jadanik

11. Orhoitzen zirea egun batez eginik juramentu
 Ez zinuela nitaz bertzerik behar mundian maitatu
 Nahiago zinuela zuri odolaz gabetu
 Ez zira ez gabetu baijan bertzetarik emendatu
 Nik jakin gabe nahi jostatu ederki zira trompatu

12. Infidelak izan dira mundia hasiz geroztik
 Ebak ere zuen jainkoa maitatu orozgainetik
 Bainan sugeak enganatu fruitu janarazirik
 Zu ere zira bertzer fidatu ni maithé ninduzulaik
 Enetzat zinen maite pollita izan ez balitz bertzerik

13. Orhoituz eni eman duzula sekulako trichtezia
 Fruitu hori ongi alhatuz egizu penitentzia
 Ez emaitekotz su garretan eternitate guzia
 Orai beretik imita zazu Madelenaren bizia
 Nigar eginez ardietz dezazun jaun jainkoaren grazia

14. Adios izar ederra uzten zaitut sekulakoz
 Pasatu ditugu oren gochoak bethi ere oroitzeko
 Hamalau pertzu ezartzen ditut gaztek etsemplu hartzeko
 Nechkatchen promes ederreri sekulare ez fidatzeko
 Hitz emaiten ez nautela bietan inganatuko

Fini

Souvenir d un grand copain

[5]

1. Mila zortzi éhun eta gehiago duena
 hiruetan hogoi eta hamalau garrena
 Sérioski izan dut numbeitik ordena
 Pertsuen pagatzeko har dezadan pena.
2. Pertsuen pagatzera orai abian niz
 Suietak nola diren informatu bainiz
 Jelosguan bizida neska gazté ainhitz
 Nik ez nitzazké salla publiko ez balitz
3. Publiko da Bancan nechkatchen solasa
 Oraino ez baladi aintzinago paza
 Sinhesteko maneran izan dut abisa
 Joka arizan direla adichkidé gisa
4. Adichkidé bezela behar zuten izan
 Elgarri mendekatzen ez baliré arizan
 Ez da gauza propia samurtzia phatzan
 Bakotchak beré faltak beharkotu jesan

1000000

10000000

100000000

1000000000

10000000000

100000000000

1000000000000

10000000000000

100000000000000

1000000000000000

10000000000000000

5. Zer erran ez dakiké gazté inozentak
Punitu behar luzké gure prejidentak
Numbeitik heldu dira holako sujetak
Guzien jujatzalé dira mendisentak
6. Medisentzia hori ez da ene aldetik
Bainan salhatarian badira nunbeitik
Behin edo bietan entzun dut egun goitik
Neckatchak dabiltzala mutillen ondotik
7. Nechkatchak gerlan eta mutikoak baké
Amoranten, solasa dabilate merkhé
Beharbada zombeitek fortuna egin duté
Eta bertze batzuk sekulako neké.
9. Coleratu zirela dudarik han ezta
Bainan pena guziak ezin manifesta
Ofisiale onak badu arrakasta
Barnetik eri dena sendatzera presta
10. Zombeit hunkitzen dira oraino suyetaz
Nok eman dio kondu obra horietaz
Erramu den bezala ni segur naiz hortaz
Ainitz lazo badela aitamen faltaz
11. Nechkatila gaztian eziztela fida
Bertzen deshoratzen gaizki ari dira
Aropa largo hortan lanjeros baitira
Serioski liberti goitzik erretira
12. Obeditzen balira ama eta ama
Ainhitz delikatu bitaké gaztiaren kreita
Bertzen satifatzia imposible baita
Imprudentik ez daiké bihotzetik maita.
13. Gaztiak badabila mila pentzamendu.
Geroko segidari egin beza kondu.
Bakotchak bere falta jesan beharko du
Penatuko bada ere nahi du ezkondu.
14. Ezkondu eta gero aihitzak malhuruz
Elgarrekin disputan gau eta egun oroz
Amodioa diruz ez ditaké uruz
Neké da maitatzia hastiatuz geroz.
15. Geroko lanjerrari ez dira behatu
Comeni den bezela nahi dut déclaratu
Uruski ez baluzté gizonek beiratu
Norbeitec behar zuen larrutic pagatu.
16. Larriaren izaitia ere ez da aski.
Nagusi denak ere badu abantailik aski
Compainian zirenek badakité naski
Soldado huna zela bat partikulazki.

17. Guzien galgarri da gurré urgulua
 Hunac ez du nahi gaiski ibilia
 Izpirituz goberna denboraz balia
 Aisiago haziren du bere familia

18. Comeni florian da amodio duena
 Guziec hobé ginuké holaché bagina
 Odolaren phizteko jiten da adina
 Aisé conda ditaké hoalako changrina

Fin

Zuhaldégaray

Biba : Garazi.

Aujourd'hui je suis heureux d'avoir écrit
 ces quelques lignes, parce que je me trouve
 en compagnie de deux autres Basques. Mais
 quand même mon cœur est triste à la pensée
 de savoir notre dévoué ami Pochulu à l'Hôpital
 avec un bras-cassé.

signé : Zuhaldegaray

[6]

1. Primaderan dira gora arbolak oro lilitzen
 Lilia denian agertzen yendia alegeratzen
 Fruitua hundu denian lurerrat erortzen

2. Mendia bethé belharez begithartia nigarrez
 Lan eginez urriki dut bainan probechurikan ez
 Orai hemen niagossu sabeletik minez

3. Erramiaren ostua bethi berde diagossu
 Besten dako erraitekuak lehenago ukan tusu
 Orai aldis suretako nork ukanen esdu

4. Ene maite pollita so eguidassu leyhora
 Eta ez ukhan herabe bortharen idoikizia
 Espresuki yina nusu sure ikhusterat

5. Baratsian udare ez nikisi ez herabe
 Beste maiterik indusula jakin isan dut nik ere
 Bestela idok niosu dudarikan gabe

6. Ene maitia ser dusu sek hola trichtasen sailu
 Berse maitiak oro utsirik sure galde heldu nusu
 Ni suria nusu suk nahi baduzu

Castet [siñadura]

Fin

[7]

Baigorriara

1. Ourcho churi polli bat baigorriin sorthua
 Urgulutan ginduen gaichua sorthua
 Nahi zuen abilki trompatu mundua
 Bainan bera isanda ongi kolpatua.

2. Ourchuaren bisia charmegarriasen
Haren parerik ez da munduan agertzen
Bijia bat bezala beti elisan sen
Kolperik basuela nork suen pensatzen.
3. Ourchuaren bisia elisan sen dena.
Nun nahi othoitzian ahuspez emana.
Hura saukaten jendek saindu handiena
Galdu isan ez balu hegalpetik luma.
4. Amodiotan nintzen nechkatcha harekin
Hitsemanak ere ba biak elgarrekin
Soaste fidatzerat oraiko gastekin
Ez dela eskonduko eran daut enekin.
5. Nechkatcha harek eguin du eni etsamina
Esin disimulatuz bere hutz egina
Ez duela segituko eran daut aintzina
Sertako hitseman daut inochent arima.
6. Amodioak badu ainhitz kalitaté
Fida ez denian sainatzen da fité
Ene maite pollita nitaz orhoit saite
Oraino ourikitan isan baisitazké.
7. Ondoko urrikia deuz esdu balio
Bihotzari changrina emandatzen dio
Maitia ez nindusun demboran hastio
Orai ez dusu enetsat hambat amodio.

Fini

[8] Atharatzeko kantu

1. Atharase jauregian bi sitroin doratu
Hongriako erregiak batto du galdatu
Errepostu ukhan du ez direla hondu
Hondu direnian batto ukanen du
2. Atharatzeko hiria hiri ordoki
Hur handi bat badu alde batetik
Erregue bidia erdi erditik
Maria Magdalena beste aldetik
3. Aita saldu nausu idi bat besala
ama bisi ukan banu aita su besala
e nindusun ez juanen hongrian behera
Bena ba eskonduren Atharratze Salharat
4. Ahispa juan site portialialat
Engoitik jinen dusu hongriako erregia
Hari eran ezosu ni eri nisala
Saspi ourthe huntan ohian nisala

5. Ahispa enukesu ez sinhetsia
 Saspi ourthe huntan ohian sirela
 Zaspi ourthe hountan ohian sirela
 berak nahi dikezi jin su ziren lekura
6. Ahispa ezarasu aropa berdia
 Nik ere esariren dut ene churia
 Ingoitik hor dussu hongriako erregia
 Botzik kitta sasu sure zor lekia
7. Aita juanen gira oro elgarrekin
 Etcherat jinen sira changrina handiarekin
 Behotza (sic) kargaturik begiak bustirik
 Eta sure alaba thomban éhortsirik
8. Ahispa soasi salako leyhorat
 Iparra ala hegua denes jakiterat
 Iparra balimbada goraintzi saldari (sic)
 Ene gorputzaren cherka jin dadin sarri
9. Atharratzeko seinia berrak erepikatzen
 Hango jende gasteria belches da beztitzen
 Andere santa clara handik phartitzen
 Haren aspiko samaria urhez da selhatzen
 Souvenir

[9] La lune

1. Argisari ederra argi egidasu
 Bidaya luse batian juan behara nuzu
 Maitia nahi nuke gaur behin mintsatu
 Haren ganatu arte argi egidasu
2. Lotara sireya losare polita
 Lotara es basira so egisu leyhora
 Eta egiaz mintsu oi izar charmanta
 Heya sure aita den engoitik lotara
3. Aita lotara bias ez isan dudarik
 Egiaren erraiteko oi ama ez dakit
 aitaren besain beldur amaren beharniz
 ene guardian baitaude lo guti eginik
4. Nekaturik heldu naiz bide luse huntan
 Urhas pausu gusiez bethi pentsaketa
 Athorra bustia dut bulhar errainetan
 Idortu nahi nuke zure ondogno hortan
5. Athorra bustia hori gareya esasu
 Nik hola manaturik bustia ez dusu
 Eta berris caldian suk condu emasu
 Bidiaren burian nahi situsten su

... s atlad okosila...
 ... anobno leed ximuzi
 ... lidia ogab natej ximuzi
 idab otaj uti nantunagat kerati

6. Es dea bada pena eta dolore
 Ni hauren maitegñoak hola suntsitzia
 ametz bat bezala egin dut zure maitatsia
 Es dea deitoragarri hola en (sic) enganatsia

Fini

Souvenir

[10]

1. Anderia ikus nerasu kampuan gaiski naisela
 Eskugno bates tira nerasu sure gambera hortarat
 Segeretu bat nahi daisut kondatu ene manera

2. Suri eskuaren emaiteko kuyarikan es dut nik
 Ene gamberan ez dizit sekula fidatu isan gisonik
 Fidatu isan direnen dako berri gaichtuak entsunik

3. Lilia churi lilia gori charmegaria zirare
 Bihar berian jar banindadi bi erresuman jabe
 Horic oro jeus ez laiste ene maitia su gabe

4. Polita sira charmanta sira agradamendus betia
 Sure eskutik nahi nikesi bisi naizeno ogia
 Osua ez badite [?] ene maiteno baten erhia [?]

Souvenir Fini

[11] St Just-Ibarre

-1-

Izena dut Pierres deisten eliseri
 cantasera noa zoibait pertsu berri
 Mila mila goraintzi nahi dut igorri
 Ene askasi eta esagun orori.

-2-

Cayer berri bat disit orai inprimatsen
 Ene penak ser diren huntan deklaraten
 Lehenagoko dembores orai nis orhoitzen
 Eta ene bihotza hayek du trichitatzen.

-3-

Nuen deliberatu bai eta komplitu
 Hamasaspi urthetan frantzia kitatu
 Ama maitia etchian nigarres gelditu
 Hayek serautan eni bihotza hunkitu.

-4-

Urrikaltzeko baita aita amen pena
 Haurak hasi ondoan orok abandona
 Gorarik beha dago salbaile jauna
 Harek lagunduren du justo dabilana.

-5-

Leku aberatsa da famos amerika
Frantsiatik heldu da jendia milaka
Balakite ser diren amerikak untsa
Hoinbertsek ez liote itsasua pasa.

-6-

Soinbait ait-amen seme miserable
Bada ameriketari moyenikan gabe
Balute frantsiatik diru eta galde
Soinbeit mila presuna balitsaite (?)juaile.

-7-

Es gira itsuliko menturaz sekula
Osagariarekin gure sor lekurat.
Sosik ez dugu eta denbora badoa
Horra montebideko mutilen mardua.

-8-

Donajustitik landa lehena ibarre
Arrangura gusiak eniak han dire
Nik han ditut aita amak aurhidia barne
Bai eta bildotchgno bat senalerik gabe.

-9-

Bildosa utsi nuen otsua gidari
Harek arrapatsen badu eginen du auhari
Nik ere pasatu dut gose bai egari
Contserbatu beharez bildotz eder hori.

-10-

Hain baita charmagari ene bildotz hori
Parerik baduela ez baitsaut iduri
Ilia du beltcha lau hatsetan churri
Hortarik desir nuske bospasei achuri.
Fini.

[12]

1. San bartolomé arratsian milla francatik jitian
Hirru mutil gastek eman dituste bersu berriak bidian
Muguere hortan ser guertatu den
Aphirilaren erdian

2. Barber gastia adisassu othoi phatser baduzu (sic)
Eritasun gaichto batek acabihur niaucosu
Erremediorik badusu
Orai beharretan nusu

3. Emanesadasu escua, icu desadan foltsia
Sukarik ére ez dusu eta esti daukasu larrua
Nuntik eré sofritzen dusun
Eradasu othoi egia

4. Erran niosu eguia supreni ez baladi mundia
 Aspaldian mintso dusu plasa horietan yendia
 Oillachko luma hori horrek duen kafia

5. Oillanda luma horria har sasu pasientsia
 Sei edo saspi ilabethe huntan gaitz
 Bederatzi hararetako [?]: serioasian sira
 Sendaturen ahal sira :

Fini

[13]

1. Arrosak eder floria ederago coloria
 Sure gatik kita nesake bisi naisen herria
 Zurekin isaitia gatik oi isar charmegarria

2. Saspi urthe baditu uda huntan konplitu
 Amodio perfekt batez sindudala maitatu
 Bainan orai beldur nusu saukidan kambiatu

3. Eri nusu bihotzez eraiten dausut bihotzez
 Sukar malinak harturik nago su zukan beldurrez
 Othoi othoi har nesasu hil ez nadin changrinez

4. Eritasun ororen kontrako erremedio badire
 Sukhar malina balinba saisu zerbisa saite barbarez
 Eta ez jin ene ganat ni mediku beharez

5. Ehastun bat badu nik bere ederez harturik
 Hura ikusi arteraino zure erhian sarturik
 Ene bihotzak ez du isanen mundu huntan plaserik

6. Erhastuna badusu bertse norbeiti emosu
 Ene ganat jinik ere probechurik ez dusu
 entseya saite bestetan eta emplega ahal badusu

7. Kitatsen nusu beras bihotzaren erditik
 Thomba batera banoasu ehortera bizirik
 Bestegnaz ez du ene bihotzak isanen deskantsurik

8. Hola maite banusu serbeit marka emadasu
 Baian gero desplaserik emangogo badusu
 Nahiago dut hemenberian hurez estal nesasun

9. Horra beraz fedia suria nusu gusia
 Nitas satifatsen bada sure bihotsa den gusia
 Othoitsen saitut ene maitea esauskidan kambia
 souvenir Fini

[14]

1. Lili polit bat badut nik
 Aspaldian begistaturik
 Bainan ez naite mentura

Haren eskurat hartserat
Baitakit serden lanjerra
Hari behatsia sobera.

2. Lili ederra behasu
Maite nausunez errasu
Sure begiek ene bihotza
Barnarik dute kolpatu
Colpe huntarik badu nik
Makur isaitea hirisku.

3. Pena nikesu ni gatik
Balibasindu makkurik
ez nuke uste ene begiek
eman dautzuten kolperik
ez dusu beraz lanjerrik
ez zira hilen hortarik

4. Mintzo zirade poliki
Poliki eta dendreki
Bizitagno bat nikezi
Su ganat nahi laburki
Desira badut segurki
Bazinedazat permeti.

5. Permeti niro maitea
Ez du hain bihotza dorpia
Bainan lehenik nahi dut
Jakín sure gogoko berria
Su ene ganat jitias
Estona laite mundia.

6. Ez ahal nusu printzia
Ez eta aitonen semia
Hola nerhoren estonatzeko
Ez da sujet bat handia
Su hain sirare chimplia
Ilusioneaz bethia.

7. Badakit chimple naizela
Hori segurki hala da
Iduritzen zaut atsulutoki
Ezagutzen naizula
Nik ere badut fortuna
Bainan ez dut ez suk emana.

Souvenir

Fini

[15]

Lusaidiarra

1. Cantore berri charmant batsuen hastera noa kantatzera
Ignorant denik balimbada guziek jakin dezaten

Isar eder bat badakissue orok badela Lusairen
Gaichua hasi da trichtatzen.

2. Jinko Jaunaren probidentsia ez deya bada handia
Irauteko plasa hortan holako originabilia
Isar eder horrek meresi luke ederki adozatzia
Offeri bat emakossie mirra edo gizentsua
Ahal duenak urhea.

3. Barber gazte bat jiten omen da espainiako aldetik
Izar eder horen kontsolatzerat erremedioz betherik
Barber gazte horrek eginen othe du oi mirakulurik
Erremediauk egin ditu bainan utzi du penaz betherik
Eta gaichua trichterik

4. Contseilu bat banikezi charmantik emaiteko suri
Barber gaste haren ganikan ez balibasira eri
Nahi balinbadusu kontzerbatu sure argi eder hori
Gesour sonbait errakosu eta katsa hori
Eta ez fida nehor.

5. Amodiotan den presuna ez bethi aldegera
Plaser besainbat penarekin pasatzen du dembora
Ni ere hementche niagosu galdurik neure odola
Maitea gabe mundu huntan ni ez naiteke contzola
Hilikan ere esdut achola.

souvenir

Fini

[16] Ibarlarra

-1-

Ibarlan baditugu kantore berriak
Suyetaren conforme dire essariak
Ainitzetarik dira isan famatiak
Declaraturen ditugu gausa passatiak.

-2- [... ..]ko alaba suri nais mintzatzen
Yendia sutas baita arras estoniatzen
Isena [& & ...] ez dute ahasten
Aurthen eskual herri gussian baitzuste aipatzen.

-3-

Arnegin hasi eta Donesaharrirat
Arte hortako phasak etziren sobera
Ilhun ondoan jiten sinen gibelerat
Sure atzegina sen guardiekin etcherat.

-4-

Amak erremedio egin sendotzeko
Etzuten aski indar efetu egiteko
Sainetan barna sartua sen gaitza orduko
Eta demborarik ez aski handik jalgitzeko.

-5-

Basko sahar goisian goisik argitu sen
Fruitu doloresko bat mundura sorthu sen
Haren sortze trichtias orok pena suten
Burrego kriminelek gastigatu suten.

-6-

Ene ama maitea suri niagosu
Sure semia nisala kontzidera sasu
Hasi nahi ez banuzu bataya nesasu
Ene arimak hori galdegiten dausu

-7-

Oi habil partiadi desgusta garria
Ahalas jakin gabe mundiak berria
Dakitalarik untsa hudala semia
Ainitzez diat herabe bichtan sofrizia.

-8-

Adios beras ama saude alegerarik,
Sure desirak oro nitan compliturik
Mundua kitatzen dut bai nahi gaberik
Arras jalgi ere gabe sure sabeletik.

-9-

Adios dautak erraiten furia haundian
Eta ni plaser hartzen hori entzutian
Epantchu iten hautan aspaldi haundian
Orai ariko nuk ni neure aldian.

-10-

Desertuetan bada bai animalerik
Ene amaren bihotza baino hobiagorik
Nik isan banu beden ama heyetarik
Mundu huntan bisitzia ez nuken dudarik.

Fini.

Souvenir.

[17]

1. Sortus geros gusiek sor dugun hiltzia
Deusik ez da gure munduko bizia
Kita kita desagun hemengo hausia
Garbiki esamina gure kontzientzia
Bertze mundian da gure justisia
Asken setensia ser aren trichtia
Eternitateko penaren lusia

2. Pena hetara geros ezda libratzerik
Eternitatiak ez du finitzerik
Sombat arima gaicho han kondenaturik
Sekulan libratzeko ez esperantcharik

[21] Sujet eder bat deklaritzen

1. Suyet eder bat deklaritzen dut gastek exemplu hartzeko
 Amodioa zoin lanjeros den gazterik hari lotzeko
 Izar eder bat hautatu nuen besuen arteko
 Behin bihotzian sartu zaut eta handik neke da ateratzeko

2. Amodio berria gazten zoragarria
 Hamalau urthe komplitu gabé erne nuen fedea
 Gerostik hunat gomendatzen dut zeruko jinko haundia
 Hura baitan ezarria dut ene esperantza guzia

3. Amodiorik duenak penak zer diren ez daki
 Ni gaichua aspaldian atakatzen nau bortizki
 Kontzolatzeko ene maitia ardura nahi ikusi
 Hura gabe mundu huntan ni ez naitake luzaz bizi

4. Arazoin duzu ene maitia ez gira luzaz biziko
 Behar baino ainitzez lehen girare tomban sartuko
 Behin maitatu zaitut eta ez zaitut hastiatuko
 Ene bihotzian sartia zira eternitate guzikotz

5. Dudarik gabe ait-amen ganik hori nuen merezi
 Zeren zaitudan guzietatik espos laguntzat berezi
 Desertaturik igortzen naute zure menetik ihesi
 Sure ganako amodioa nahiz arras galarazi

6. Ene ganako amodioa ez ahal duzu galduko
 Zuk utziz geroz ene maitea laster naiz tomban sartuko
 Emeki emeki ez othe dugu lan hori obtenituko
 Menturaz zure aita amak dira oh gutaz urikalduko

7. Despeditzean abiatu zaut beguietarik nigarra
 Adios beraz sekulakotz oi ene maite leyala
 Apeentziaz zu etzinen ene kin bizi behara
 Jaun zerukoak cherka dezala suk behar duzun bezalakua

8 Ez ahal zaude despeditzera hoinbertze urthen burian
 Batek bertziari gure manerak deklaratu ondoan
 Jakinezazu jende ukaturik ez dela sartzen zeruan
 Ez eta esposik ez nio hauta zutaz bertzerik mundian

9. Hombertze urthe bizi izan gira biak elgarrez agradoz
 Bai eta gero fite trichtatu ait amek jakinez geroz
 Amodioa zoin handia den diruz ez ditake uros
 Hori dela medio gare biak biziko agrados

Fini

Souvenir de Pierre Uhart

n°118 route de Medoc, Le Bouscat Gironde

[22] Ameriketako letcheruaren kantuak

1. Amerika hortako esne saltzaleak (bis)
 Libertisionerako parerik gabeak

- Girichtinotasuna dira ikasiak
 Bathaiatzera dituzte guziek esniak
 Ez dire empatchatuko haur sortu berriak
2. Errepartu egiterat, goizetan badoazi (bis)
 Beren kantinetatik eginez sombait jauzi
 Batian hartu eta bertzeari utzi
 Karruan ura frango bannan esne guti
 Irakiturik ere ez da joaiten goiti
3. Omone ona dute, goizetik ardura (bis)
 Nork daki sombat aldiz trempatuz zinzura
 Bortaz borta oihuka bero letche purra
 Lauetarik hiru segurikan ura
 Ez du balio ezartzia berotzeko sura
4. Yuaden egun batian, zioten sonbeitek (bis)
 Gostuz edaten die sendo eta eriek
 Ordenatuz gerostik beren medikuek
 Ez die ezagutzen lauetarik biek
 Hobia edaten dutela kanpoan cherriek

[23]

- [3. Bertsutik hasten da]
 3. Kantuz emanizan tut zenbaiten berriak
 Kantuz gustatu isan saut erraitia egiak
 Kantuz eman baditut noizbeit afruntuia
 Kantuz barka bitzate ené bekatiak
 Kantuz eginen ditut nik penitentziak
- 4 Kantuz eginez geroz mudurat sortzia
 Kantuz behar dut ba egin yalitzia
 Kantuz emaiten badaut jainkoa grazia
 Kantuiz idekiko daut San Pedrok athia
 Kantuz egin dezada zeruan sartzia
5. Kantuz ehorts nezaten hiltzen naizenean
 Kantuz ené lagunek harturik airian
 Kantuz ariko dira ni lurian sartzian
 Kantuz frango utziko diotet munduan
 Kantuz edan dezaten nitaz orhoitzian

[24] La valse des artilleurs

1^{er} couplet

Dans le quartier qui sommeille encore
 Vient de sonner la trompette
 Lers artilleurs déjà remplis d ardeur
 Au bat du lit sautent encore
 L adjudant n est pas loin
 Et méfiez-vous en bien

Prenez garde aux quatre perles ! >

Refrain

C est la valse des artilleurs
 Que l on chante au bruit des tracteurs
 Dans les agrés et les mouflages
 Chacun chante avec courage
 Tout en songeant que bientôt
 On chantera aux échos :
 Vive la classe c est dommage
 Elle n arrive pas trop tôt.

2. Et le briquage commence aussitôt
 Chacun empoigne sa brosse
 Un bout de cire et on [tona bat bada paperean]....
 pour bien briquer le parquet...
 puis une autre sonnerie
 Que l on connaît tous ici
 Dans le quartier retentit

C est la valse....

3. Puis le margis prend sa plus belle voix
 Pour crier d un air feroce
 Dans cinq minutes tout le monde en bas
 Tenue deux capote trois
 Tous les treillis sous le bras
 On se rassemblera
 En murmurant tout bas

C est la valse....

4. Puis patientons jusqu au bout
 Ou l instruction y en a mère
 Puis c est la soupe qui sonne
 Nous allons boire du bon vin
 Mais cruelle déception
 Le pinard n est pas bon
 Les fayots flottent dans le bouillon

C est la valse des artilleurs....

Fin

GRAFIA

Kahierak dakarren grafia bere hartan utzi dugu, ulert ez daitekeen pasarte kora-pilatsu hainitzik ez duelakoan emaiten. Grafiaren aldetik, gauza arrarorik ez du era-kusten dokumentuak, huts zombait kendurik.

Bokalismoaren aldetik, gehienetan [u] 'u' grafemaz ordezkutzen da, nun ez den arras gutitan ou grafemaz adierazten : *ourcho*, *ourikitan*, *hountan*, *gesour*. [e] soinu-a e eta é grafemez agertzen da. Azentua emaiten du egileak bereziki hitz-bukaeran : *maité*, *othé*, *urthé* bainan bestalde ere ; *éhuneta*, *égun*, *égiten*, *déclaratu*.

Bokalen arteko – *i*-ren ondorioa ‘y’ letraz adierazten da : *puyes, Kayet, suyetaz, cayer* ... Bainan diptongoan ere agertzen da : *leyhora, bejta*. Izen berezietan, [i] bai-zik ez du adierazten y letrak ; *Etterry, Marty*. Azkenik, herskari-igurzkarri sabaikoa-ren berri emaiten du y letrak : *yainkoak, yuyatzeko, yendia, yina, yua(n)n* den nahiz gehienetan ‘j’ grafema erabiltzen duen : *jainkoa, jujatzalé, jendia, jin, joan*.

Diptongoetan puntu hau gaineratu behar da : gutitan ez balinbada ere, ‘i’ grafema agertzen da : *sei, oi*. Bitxiago da *askenian* hitzean agertzea.

Herskarietan, usaia zen bezala, [g]-ren kasuan *u* emaiten du, *gue* eta *gui* formetan bainan oso gutitan : *erregue, guertatu, beguirik, eguidassu*. Gehienetan *ga* eta *ge* idazten du : *erregea, segetu, gelditu, begira, ginen*. [k]-ren kasuan, ‘k’ letra dara-bila ardurenean, nahiz *c* zombait agertzen zaizkion, bereziki hitz-hastapenetan : *cayer, escua, conforme, declaratu*.

Zombait aldiz, *g*-ren eta *p*-ren aintzinean *t* bat sartzen du : *ontgi, étgiten, kotpiatu*.

Txistukariak nahasiago direla erran daiteke eta ez da harrizkorik. Igurzkarrietan, [s] bizkarkaria gehienetan ‘z’ grafemaz adierazten da. Hala ere eta noiztenka, beste hiru grafema baliatzen ditu : ‘ss’ : *adresa, niagossu, essariak*... ; ‘s’ grafema, bereziki hitz-hastapenean : *sorigaitzeko, sauskidan, saitu, soasi, sonbait, geroztik*... ; ‘ts’ behin agertzen da : *otsaba*. ‘tz’ agertzen da iduriz afrikaturik ez den tokian : *naitzenian*. ‘c’ grafema ahatik ez du erabiltzen.

Igurzkari sabaikoa, [j] beti ‘ch’ grafemak adierazten du, denbora hartako usaian bezala : *churi, hauche*... Eta [s] apikaria ‘s’ grafemak adierazten du : *seme, saldu, hasi*... ‘j’ eta ‘tj’ grafema arraroak emaiten ditu : *prejo, lehen kutjia, jeindu*, kantu bakar batean agertzen direnak. ‘ch’ ez du sekulan erabiltzen apikariaren kasu honetan.

Afrikatueta [ts] soinua gehienetan ‘tz’ grafemaz adierazten da : *zortzi, goraintzi*... .. Bainan ‘ts’ ere erabiltzen du : *baratsian, utsirik, hitseman, mintsatu, itsuliko*.

[ts] apikaria ere ez da beti molde berean agertzen : gehienetan ‘ts’ emaiten du : *untsa, kontsolatzen*. Bainan ‘tz’ ere zombaitetan eskapatu zaio ; bereziki hitz-bukae-ran : *sinhetz, hatz perahen, ardietz, ametz, (= amets), bertzu, pertzu*. ‘s’ grafema ere baliatzen du : *Atharaze*. Behin ‘x’ agertzen da mailegu batean : *exemplu*. ‘z’ grafema gutitan bai-zik ez da ikusten : *kantazera*. Bitxiago da kantu batean agertzen den ‘tj’ gra-fema, ozena adierazten ez duena : *ebatji, kontjideratua, untja, etjemplua*

Azkenik, [tj] sabaiurrekoa ‘tch’ grafemaz ordezkutzen da : *probetchurik, etcheko, beltcha*...

Dardarkarietan, oposizioa aski garbi begiratu da. Halere ‘r’ grafema erabiltzen du dardarkari ainitzaren adierazteko ere : *eran, behara, sukarik, ederago*...

Sudurkarietan sailean, *b* eta *p*-ren aintzinean *m* edo *n* erabiltzen ditu : *zombat, trom-paturik, zampaka, edo nunbeitik, denporaz*.

‘gn’ grafema erabiltzen du gehienik palatalaren adierazteko : *ondogno, eskugno, bildotchgno, bestegnaz, bizitagno, ignorant*. Bainan bi aldiz ‘ñ’ emaiten du : *Mañech, erazuño* eta behin ‘gñ’ : *maitegñoak*.

Hasperenduak : hasperenketa ezagutzen duten herskariak ‘ph’, ‘th’ eta ‘kh’ grafe-mek adierazten dute : *aphairu, ephantxu, bethiko, sorthu, othoitz, merkhe, ukhan, sukhar*. ‘h’ idazten du ere *l*-, *r*- eta *n*-ren ondotik : *ilhun, belhaunikatua, alhatzen, bul-har, aurhide, orhoit, erhian, erhaztuna, urhas, burhasoen, seinhuak, ainhizan, ainhitz, sinhetz*. Behin ‘ll’ grafema agertzen da, dudarik gabe [lh] adierazten duena : *salla*.

KANTUAK

24 kantu ekartzen ditu kahierrak, denak euskaraz azkena salburik : *La valse des artilleurs*, frantses armadetan kantatzen omen zena, hain zuzen Bordeleko Nansoutyn kokatua zen taldea artillerazkoa zelakotz.

Kantuen mamiaz aritzea ez bada gure xedea ere, ohartaraztekoa da kantu gehienek amodioa dutela aipagai : gertakari historikoak, kantu politikoak ez dira sartuak izan ; aldiz nehun agertzen ez den haur-hiltze bat deitoratzen duen kantu interesgarria eskaintzen digu. Oker ez bagaude, 5 kantu badira kahirrean beste kantutegietan agertzen ez direnak

Horren egiaztatzeko Iparraldeko kantuak biltzen dituen antologia bat hautatu dugu, hemen agertzen diren kantuek hartan aipurik dutenez so egiteko : *Khantu Khanta Khantore* liburu ezagunaz gain, badago hain zuzen P. Urkizuren eta P. Garziaren gidaritzapean argitaratua izan den liburua : *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako Bertso eta Kantuak*, Etor, 1, XXXIX-918 orrialde ; 2, XLVII-936 orr., 1991. Tonarik gabeko obra ez da baina hura da erreferentzia gisa hartu duguna eta hemendik aintzina LBZK laburduraz deituko duguna. Goazen bada banan bana kantuen aipatzera.

1. *Galerianoaren kantua* : guziz ezaguna da M. Larralde Bordaxuriren kantua (LBZK2, 664 orr.). Baina aldaketa ttipi zombait ageri dira kahirreko testuan eta bertso bat falta da 10 bat bertso baizik ez baita ageri kahirrean. 1. *Poma* ; horrela da testuan eta ez *Pluma*. 4. *Puyes* : beste bertsioetan *burjes*. 8. *Ni baita* : horrela dakar esku-izkribuak et *n* letraren ahanztea frangotan gertatzen zaio kopiatzaileari. *Etjemplua* : horrela testuan.
2. *Hemen... ..* Kantu hau ez da agertzen kantutegietan. Testuak dioen arabera, Ainhizeko Mañex Carricartek ondu zuen ospitalean Omiasaindu inguruan, erizainek brontxita txar bat artatzen ziotelarik. Beste lagun baten izena emaiten du : Marti Etxerri. Kahierra han hemenka andeatua izanik, lerro batzu ez dira irakurtzen ahal. 6. *Ederrentan* dakar testua, seguruenik *ederretan* edo *ederrenetan* ezarri beharrean.
3. *Bi bertzu nahi nuzke* : LBZK1-k ez du emaiten : kahierrak kantuauren doinua emaiten du : *Lili ba ikhusi dut baratze batean*. 6 : *yainkoak beguirik* (?) : testua ez da ongi irakurtzen eta hitz horren gaineko partean beste bat idatzirik da, irakurtzen ez duguna. 7. *Horiataririk* : *horiatarik* irakurri behar da. Azken lerroaren ondotik hitz hauk ezarri ditu frantsesez : *Souvenir d'un copain. Fini*. Hitz berak agertzen dira beste kantu zombaiten ondotik.
4. *Sor lekhua dut.../* LBZK1-k emaiten du 353. orrialdean, lerro bat falta duela 4. bertsuari. Aldaki ttipi batzu ageri dira kahirreko bertsioan. 1. *Eskual ederrean*. *Herri* hitza ahanzi du kopiaegileak ; *girichtiki* : horrela testuan. *Hemanik* : horrela testuan. *Zabilala* : horrela testuan bainan badakigu 'ibili' aditza noiztenka ager daitkeela ergatibozko kasu batekin. 8. *Egon zen* hitzen ondotik xurigune bat badago, behar bada autozentsurarengatik : Beste bertsioek alabainan *ganberan sartu zen* emaiten dute. 9 *hatz perapen* ; *hasperapen*. 14 : *hitz emaiten* hitzen ondotik *dut* hitza ahanzia izan da.
5. *Mila zortzi éhun eta gehiago... LBZNI-k ez du ekartzen*. 1. *Pagatzeko* eta 2 *pagatzera* : *obratu* edo *paratu* erran nahi bide du. 6. *Salhatarian* : *salhatariak* behar luke. 14. *Aihitzak* : *ainhitzak* irakurri behar da. *Uruz* : *eros* hitza hobeki jin laiteke. Orrialdeko beheko partean, badago testu bat frantsesez idatzia, Pochulu lagunaren izena aipatzen duena. *Biba Garazi* ere idatzi du kopiaegileak ezkerreko partean, bera nuntsukoa ote zen nolazbait salatuz.

6. *Primaderan dira gora arbolak*. LBZK1-k (577. orr.) emaiten duen *Mendiak bete belarrez* kantua aldakia da sei bertsurekin. Aldiz *Khantu khanta khantore* liburuan, kasik hemen bezala hasten da testua : *Primaderan gora dira arbolak loratzen*. Ohartarazteko da hemengo testuan Lekunberri brigada aipatzen duen berttua ez dela agertzen. 5. *Nikisi* : horrela da testuan, nahiz ustez *nikezi* erraiten den. Behereko partean, bere siñadura eman du JoaÑes Castetek. Erran gabe doa ez dela hargatik kantua egilea izan.
7. *Baigoriara* : Kantutegietan ez da ezaguna nahiz hegalpeko lumaren metafora aski zabaldua den. LBKN1-k aipatzen duen Baigorriko urzoaren kantua, *Mila zortzi ehun eta hogeita hemeretzi* tituluz, oso liferent da.
8. *Atharatzeko kantu* : guziz ezaguna den Zuberoko kantua da. 9 bertsu baizik ez du emaiten kahierrak. Ziberotarrez dagoen *ü* eta *u*-ren arteko diferentzia salbatua da 'ou' eta 'u' grafemen bidez, beste kantuetan horrelakorik ez delarik agertzen. 5. : lerro bat errepikatu du kopiaegileak. *Berak nahi dikezi* : ergatiboa emaiten du bert-sio honek, *bera nahi dükezü* usaiakoaren ordez. 7. *Behotza* : *Bihotza* irakurri behar. 8. *saldari* : *Salhari* irakurri behar.
9. *Argisari ederra* : LBZK1-k emaiten du 532. orrialdean bainan lau bertsutan, kahierrak sei bertsu eskaintzen dituelarik. Aldaketa ttipi zombait baditu. 6. *Ni hauren* : *nihaur* ulertu behar da. *Ametz* : *amets* ulertu behar da. Kahierrak titulua frantsez ekartzen du, beste tinta batez idatzirik : *La lune*.
10. *Anderia ikus nezazu*. LBZK1-k ez du horren berririk emaiten. 1. *Nezazu* : behar bada *ezazu* hobeki jin laiteke. 4. Azken lerroa ez da ulertzen.
11. *S-Just-Ibarre* : *Izena dut Pierres deisten eliseri*. Kantutegietan ez da ageri Oztibarreko emigratuaren kantu hau. 1. *Deisten* : *deitzen* irakurri behar. 4. *Salbaile* : *salbatzaile* ulertu behar. 7. *Mudua* : horrela testuan. 10 : *hatsetan* : *hatzetan* irakurri behar.
12. *San Bartolomé arratsian* : 774. orrialdean LBZK1-n. Aldakiak baditu hemengo bertsiok. 2. *Acabihur* : *Akabi hurran* irakurtzea proposatzen dugu. 5. *Bederatzi hararetako* : ez da ulertzen.
13. *Arrosak eder floria ederago*. Kantua ez da ezaguna oro har. Egia da hemengo bigarren berttua agertzen dela *Zazpi urthe badizu uda huntan konplitu* (LBKN1. 617. orr.) titulua duen kantuan. Hemengo 5. eta 6. bertsiuek egite badute segurki LBKN1-ko bertsiorekin bainan besteak ez dira ezagunak. Aldiz ez da ageri hemen Juandonejakiren izena. 3. *Su zukan* : ez da ulertzen. 4. *Barbarez* : horrela da testuan eta ez *barberaz*. 7. *Ehortera* : mota bereko beste daturik ez izanki, ez daiteke ahatik erran Zuberoko testua denik.
14. *Lili polit bat badut nik* : LBZK1-k kantu berdintsua ekartzen du *Lili eder bat badut nik* tituluekin (546. orr.). 2. *Badu nik* : *badut nik* irakurri behar. 4. *Dendreki* : horrela testuan. 5. *Ez du* : *ez dut* behar luke.
15. *Lusaidiara* : *cantore herri charmant*. Borddeleren kantu ezaguna da. Lerro bat falta da lehen bertsan eta 5 bertsu baizik ez du ekartzen kahierrak 1. *Luzairen* : horrela testuan. *Irauteko plaza hortan holako originabilia* : *Irauzketako plaza hortan holako argi noblia* behar luke. 3. *Erremediauk* : *erremedioak* irakurri behar da.
16. *Iharlarra* : Kantu hori ez da ezaguna. Gehiago dena, mota honetako kanturik ez da ageri kantutegietan. Alta badakigu kantu honetan aipatzen den haur-hiltze ez zela hain bekan gertatzen. Historio-egileek erakutsi duten bezala, lege-hauste

molde hau usu gertatzen : horren lekukoak dira tribunaletako artxiboak eta adineko jendeen oroitzapenean oraino bizirik dauden manera bereko kasuak.

Bigarren bertsuan kahierrean idatzirik dauden etxe baten izena eta emaztearen izenak kendu ditugu. Ez gara ibili inkesta egiten egiazko gertakariaren inguruan. Halere, kantu honen irakurtzearekin gogoan igan zaigu jende bati baino gehiagori egoizten zitzaiola modu bereko zafraldia, xehetasun zorbait gorabehera. Bestela erranez, galarrots, tzintzarrots, berdura, astolaster edo salaketa-kantuetan bezala, uste izaiteko da kantuaren egitura beti bertsua izan zitzakeela. Gogo horretan ginaudelarik, kantu beraren beste bertsio bat Urdiñarben bildu genuen eta hurrunago emaiten dugu. Bai eta ere haur abandonatu baten kantua, hura ere Urdiñarben bildua, nahiz ez den Zuberoko mintzairan emana.

Horrela antolatua da *Ibarlarra* deitu kantua : ohizko sarreraren ondotik (1. bertsua), nexkatilari berari mintzatzen zaio koblakaria (2.) eta gertakariaren segida emaiten hasten da : nola ibiltzen zen guardiekin (3.), nexkatilaren ama nola entseatu zen haur-egoxtearen eragitera, debaldetan (4.) eta Bazko zaharrez bizirik sortu haurra nola hil zuten (5). Ondoko 5 bertsuetan, haurraren eta amaren arteko alegiazko elgarrizketa gogorra badator berri gehiago emanez, hala nola haurra bateiatu gabe hiltzen dela eta haurraren hiltzeaz amak plazer hartzen omen duela.

Oharrak : 5. *erremedio* : ekei abortiboetaz ari da. 9. *Epantchu* : oztopo, poxulu erran nahi du, haur-beharretan dela eta. *Hautan* : iraganaldiko forma da ('hinautan').

17. *Sortuz geroz gusiek sor dugu...* LBZN1-ek ez du ekartzen
18. *Charmegarria nik zure berririk ez dut..*; LBZK1-k *Xarmegarria, zure berririk (Arbonarrak)* ekartzen du 702. orrialdean eta aldakiak baditu kahierreko testuak.
3. Aigerrurik : horrela testuan, aingerurik eman beharrean.
19. *Gaztea hiltzeat doana* ; kantu ezaguna da eta Harluchi izena agertzen da kahierrean. 3. *Beharkan* : *Sehaskan* behar luke
20. *Bi gazten kitatzea* : *Zaspi zortzi bertsu*. LBZK1-k ekartzen du 705. orrialdean. Aldaki ttipiak baditu hemengo bertsioak.
21. *Suyet eder bat deklaritzen dut gaztek...* kantu ezaguna da, LBZK-k 700. orrialdean emaiten duena.
22. *Ameriketako letcheruaren kantuak* : guziz ezaguna den Mendiagueren obra da. 4 bertsu emaiten ditu kahierrak eta ez 10.
23. *Kantuz* : hemen ere Mendiagueren testua ez da osoa ; ez da hasten lehen bertsutik baizik eta hirugarrenetik.
24. *La valse des artilleurs* : kahierreko azken orrietan den frantsesezko kantu bakarra da.

URDIÑARBEO KANTUAK ETA HAUR-HILTZE : BESTE BERTSIO BAT

Casteten kahierrak eskaintzen duen kanturik inportanteena hamaseigarrena dela erran ginezake, erran nahi baita, haur-hiltzea aipatzen duen kronika, *Ibarlarra* tituluarekin. Jadanik erran bezala, Oztibarren kokatua da, Donaixti-Ibarreko etxe bat eta hango nexkatila bat izendatzen baititu koplakariak. Geroztik beste bertsio baten edireitea gertatu zaigu. Eskerrak zor dizkiot Urdiñarbeko Pierre Zubiri jaunari kantu horren berri eman baitigu eta kantatu digulakotz. Geroztik Euskal-Herriko Atlas

Linguistikoaren inkesten egiten ari ginelarik, kantua mañetofioian hartu genuen 1989ean.

Zubiri jaunari, Donaixti herria ez zaio txit arrotz. Garaibiko tinian sorturik 1910ean, Bordagai etxean, Naphaleko lepo altexean, han Donaixtirekin mugakide zen. Kantuaz zer ote zakien galdegin giniolarik, kahier batean idatzirik bazuela erran zigun. Gertakariaren berri amak eman zion bestalde. Bainan bere kahierrean agertzen den kantuan aipu den etxearen izena eta Casteten kahierrean emaiten den izena life-rent dira. Iduri luke beraz kantu berdintsua erabilia izan dela bi gertakari desberdinen karietara. Horrela egina izan bada eta jadanik aditzera eman dugun bezala, kantuaren mamia ez zitekeen hanitz alda kasu batetik bestera. Bi kantuak bi aldaki dira, ber egi-tura batetarik idokiak.

Gauzak horrela eta bi kantuak elgarren askazi balinbadira ere, egiari zor diogu erraitea bi kantuak ez direla ber moldean egitaratuak hurrunago erakutsi bezala.

Baina lehenago Zubiri jaunak bere amari entzun istorioa gogora ekarri behar dugu. Jendeak jakin omen zuen haur sortuberria hil zuela ama gazteak. Halako kasuetan bastart izena zerabilan jendeak, ezkontzatik kanpo sortu haurraren izendatzeko. Gehienetan, haurraz zen erraiten eta ez haurrari berari. Halere eta diotenez, gure kantuaren protagonista nausia, haurraren hil zueneko ama beraz, auzoan egoiten zen hogoi urteko mutiko bati behin trufan mintzatu zitzaion. Mutiko hori auzoko nexkatila batek egin zuen eta osabak etxean berean hazi zuen, potikoa ahatik mutilgoan bezala lanean ari zitzaielarik. Egun batez mendira edo bortura zoalarik behien eramaitera, gure kantu huntako emazteak erran omen zion : "Ba, hi mithila merkhe gozaten hute !". Eta delako bastartak errefera itzuli omen zion ahoan bilorik gabe : "Ba ! zük ere ez bazünü hil-arazi sorthü zünien hua, zük ere mithila bazünükien orai !" Eta horrekin utzi zuen emaztea. Diotenez ere, emazte hori ezkondu zen delako haur-hiltzearen ondotik eta familiarik ez zuen izan. Senarrari auzoko mutikoak zer erran zion aipatu ziolarik, esaera zaharra baliatuz gizonak hauxe igorri omen zion : "Eh ! thira zan ! thira zan korda ! entzünen dün geo zeñhüa !" haur-hiltzea jendearen ixilean ez zelakoan arras gertatu.

Dena den, horra Zubiri jaunaren kahierretik kopiatu kantua :

[Etxe baten izena dakar kahierrak, hemen emaiten ez duguna].

1. Basco sahar goisian argitu sen
Fritu doloresco bat mundura sorthu sen
Haren sorthé tristias oroc phena suten
Burreu crimineles atacaturic sen.

2. Désértietan bada oi animaleric
Oi ene ama béno bihots hobecoric
Ama bat ukhen banu aments haietaric
mundian bisitsias es nuquian dudaric.

3. Ené ama maitia souri niagosu
Sure seme nisala countsidera esasu
Hasi nahi espanaisu ere batheia nesasu
ene arimac haour galthe giten deisu.

4. Adios éne ama saoudé alagéraric
Souré désirac oro nitan counplituric
Mundia quitatsen dit oi nahi gaberis
Osoki jelkhi gabé soure sabéletic.

5. Adios déreitaca trichtésia handin
 Nic éré plaser hartsen hori entsutin
 Ephantchu égiten heitan igaran aspaldin
 Ni éré mendecatsen orai éné aldin.

6. Tristéric agertsen nis éné Jinco Jauna
 Su souré serbutchucu creatu naisuna
 Argiric gabes badit malur éta phena
 Ené amac bésala es othoi aboundena.

7. Hil ondoan es da asqui éhorstia
 Gibeletic heldu da laster justíçia
 Harec chéhéquiren du éné khorpits trichtia
 Ordian agerturen da souré crima gordia.

8. Amaguei gusiec harsasie etsenplu
 Ené amaren obrés égin gabe casu
 Halaché nai tratatu bai eta dolutu
 Béré ouhouria oro holas beitu galdu.

Erran bezala diferentziak badira bi bertsioren artean. Zortzi bertsu badauzka Zubirik, Castetek aldiz hamar bat. Zubiriren kahierrean hatsarreko bertsu dena bostgarrena da Casteten bertsiotan : beraz Casteten sarrera (*captatio benevolentiae*) eta gertakarien kronika ez dira agertzen Zubiriren testuan. Casteten azken bertsu (hamargarrena izanki) bigarrena da Zubiriren testuan, mintzairan diren aldakiak aldaki. Zubirik lehenbiziko partean zerbait ments balinbadu beste bertsioren aldean, aldiz ondarreko bertsuetan dakarrena ez da hatzemaiten Casteten kahierrean, hala nola inkoari haurra mintzaten zaioneko bertsu (6.), justiziak egia argituko duelako bertsu (7.) eta koblakariak amagei guziei eman abisua (8.). Bainan biak egite handikoak dira eta ber moldetik idokiak, duda izpirik gabe. Beraz bi kantu hauk gertakari-motaren salatzeko leitmotiv baten bi aldaki arradotzat har genezazke.

Paradaz balia, beste kantu bat emaiten dugu, beti Zubiriren kahierretik harturik. Zaiak egite badu aintzinekoarekin : alabainan, haur sortuberriaren hiltzea du aipatzen. Amak haurra kanpoan abandonatzen du, beste norbaitek altxatuko duelakoan. Altxatu, indere gazte batek altxatzen du. Bainan biharamunean haurra hiltzen da, bateiatua izan ondoan (bataioa beste kantuan ere aipu da). 1929ko data eman du Zubiri jaunak kantuari ondorengotik. Ez dugu jakin ahal izan nun egin izan den kantu hori. Eskuararen aldean mendebaldekoagoa da (*nauzue, iruzkia, etorri, etxatu*) nahiz ortografian Zuberoko :zaugarri zombait sartu dituen kopieagileak : *oen* eta ez *oren*. Horra testua :

Nigares sorthuric

1. Nigares sorthu nintsan nigares hiltzeko
 Es ordéan mundu hountan lusa [s] bisitcéco
 Yendec isanen duté éraitéco frango
 Aita ama maiteac souen biendaco

2. Aita ama maitéac mundura sertaco
 Eman isan nausué sorigaits hountaco
 Nic ez nouen hobénic hola tratatséco
 Fédéric éman gabé abandonatséco

3. Sorthu nintsanétic hiou oén gabé
Bérec chokho batéan gaichoua éman naute
Nihaur bakharic bisi choriac aurhide
Ene consolatsérat khantus heldu diré

4. Ni goiséco aruen hémentche paratu
Gérostic iruskiac gainetic pasatu
Aitaric esdut eta amac nau etchatu
Ez othé nauté béhar norbeitec altchatu

5. Sorthé triste hountan nais mundura ethori
Oi hemen niagosu bildots bat iduri
Lura saheska eta serua estali
Noréna othé naisen yancoak badaki

6. Iruskia sénian séruan aphaltu
André gaste bat sautan aldétic pasatu
Aingeru bat nintsela senian ohartu
Amoltsuki ninduen bésuétan hartu

Sato enekin sato aingeru maitéa
Dolu eingari litake su hemen ustea
Boskario énétsat sutas yabetséa
Eracutsico dautsut séruco bidéa

Bathaitu éta biharamunian
Yaincoak éraman du adin édérrian
Haura ez da géhiago munduco bisian
Aingeruekin dago séruco lorian

1^{er} Mai 1929

Oharrak : 01. *Lusa* : luzaz irakurri behar. 5. *Saheska* : seaska. *Estali* : izena da (oh-
estalgia, alégia)

AZKEN DOKUMENTUA : DOMINTXINEKO OILARRAK

Oztibarreko kantuak utzirik, lekuño bat eman nahi genioke Zubiri jaunak kopiatu
zuen beste kantu bati : kantu horren entzutea frangotan gertatu zaigu, Ustaritzen,
Zuberoan, eta Amikuzen besteak beste. Arrakasta handiko kantua, nunbait.
Kantuegietan ez hatzemanik, testua hemen ekartzen dugu. *Domintxañeko oillarrak* du
titulua.

Dominchagnéco oillarrac

1. Bi berset baditut orai éginic
Sujeta ukhenik domintchagnétic
Oillarrac ditustéla aras gnaphurturic
Aisoko oillouétan bisiaturic.

Errepika

Biba oillar saharra oi ser oillakaria
Biba oillar handi lepho lusia



2. Etchengo oillouetan ez duté gousturik
 Nahiago beitusté kampokouetaric
 Atsamaiten dutela oi es da dudaric
 Menturas ez béthi nahi dutenétaric

Errepika

3. Oillouez ere ez dira bethi contentatsen
 Oillandac ere dituste gaiski atakatsen
 Haien inousentsias dira baliatsen
 Lehouïn baten pare gero aplicatsen

Errepika

4. Orai nahi dianac cambiatu oillara
 Domintchagnen bada mota particulara
 Arasas handi eta ilhun coloria
 Oillouen jocatséko pare gabia

Octobre 1929 Refrain Fin

Oharra : 1. *gnaphurturik* : 'ñapur' erraiten da aizoan usu sartzen den kabalez bai eta ere jendeaz. Ikusten da 'lapur' hitzaren aldakia dela. 2. *Etchengo* ; forma honek ongi erakusten du Zuberoko morfologiaren eta Baxe-Nafarroko fonologiaren gurutzamendua, oraindik ere Domintxinen hain zuzen eta auzo-herrietan entzun ditekkeen forman. 3. *Aplicatsen* : errannahi gordina du : 'jokatu', 'apaindu' adierazten du. Bardozen adiera beraren entzutea gertatu zaigu, hain zuzen oiloari aplikatzen omen zaion hegazti harrapakari batez.

Xarles VIDEGAIN
UPRESA du CNRS
 UPPA